

## ARGIA SARIAK 2011

### Internet

“Hitzak haizeak eramaten ditu”, behin baino gehiagotan entzun dugu esaldi hori. Hizketan esaten ditugun kontu gehienak desagertu egiten dira erremediorik gabe, normalean, eta gurea bezalako hizkuntza batentzat galera handia da hori.

Zenbat espresio, hitz eta esamolde ez ote ditu galdu euskarak dagoeneko, horiek erabiltzen zituzten pertsonen ahotik jaso ez izanagatik?

Baina batzuk hasi ziren duela zenbait urte bide hori urratzen eta beharrezkoa da egiten duten lana azpimarratzea, goraiatzea eta saritzea.

2011ko INTERNET alorreko ARGIA SARIA esparru horretan lana beltz egin duen webgune batentzat da. Euskal Herri osoko adineko jendea elkarriketatu dute eta material hori bideo eta audio formatuan sarean jarri, guztira 5.000 bideotik gora, ia 2.000 audio artxibo, altxor bat euskaldunontzat, urre gorritzkoa.

Altxor hori guztion esku jarri izanagatik 2011ko INTERNETEKO ARGIA SARIA ematea erabaki dugu **AHOTSAK.COM** webguneari.

Etor daitezela saria jasotzera Aintzane Agirrebeña eta Asier Sarasua webguneko kideak. Zorionak!

### Prentsa Idatzia

Elkar topatzeko leku bat edukitzea gazte askoren problema izaten da; lokalak garestiegi daudela, gaztetxetik bota dituztela, tabernetan jende gehiegi dagoela eta ezin dela hitz egin, behar bezalako topaguneak ez dira gehiegi.

Biltzeko lekuak ez dira fisikoak bakarrik, ordea eta euskal gazteek badaukate hilabetero beren burua islatuta ikusteko aldizkari bat.

Musika, sexua, internet eta teknologia berriak, zinema, literatura, albiste bitxiak, denetarik eskaintzen die 2011ko PRENTSAKO ARGIA SARIA jasoko duen produktuak.

Eta hori guztia eskaini die irakurleei azken hamar urteetan etengabe garai berrietara egokituz.

Euskal gazteek beren burua imajinatzeke eduki duten tresna garrantzitsua izateagatik PRENTSAko 2011ko ARGIA SARIA eman diogu **Gaztezulo** aldizkariari.

Etor daitezela saria jasotzera Raul Perez Gaztezuloko ordezkaria. Zorionak!

### Publizitatea

Euskaraz bizi garenok gutxiegi garelara horixe daukagu sartuta buruan askok eta horrek konplexu asko ekartzen dizkigu, txiki sentitzen gara erdaren hiztun kopuruak ikustean.

Horregatik, PUBLIZITATE alorreko ARGIA SARIA jasoko duen kanpaina ikusi genuenean, saritzeko modukoa zela pentsatzeaz gain inguruko artean zabaltzeko gogoia ere piztu zitzaigun berehala.

Horrelaxe lortu baitu arrakasta kanpainak ahoz-ahoz, jende askoren parte-hartzearekin eta teknologia berriak erabiliz.

Esaldi sinple baina indartsu bat eta kontzientzia bat: bagarela, asko izan gaitezkeela.

Eta asko dira, 7.000tik gora, kanpainarekin bat egin eta euskaraz egiten dutela esateko aurpegia eman duten herritarrak.

Euskararen aldeko kanpaina batean herritarren inplikazioa lortzeagatik, 2011ko PUBLIZITATEKO ARGIA SARIA merezi du Donostiako Udalaren “**Nik ere euskaraz**” kanpainak.

Betor saria jasotzera Ainhoa Beola, Donostiako Udaleko ordezkaria. Zorionak!

### **Telebista**

Elkarrizketaren artean dena asmatua zegoela uste genuen ezin zela kazetaritza-genero hori berrasmatu baina oker genbiltzan, aurten TELEBISTAKo ARGIA SARIA jasoko duen saioak erakutsi digun moduan.

Sortzaileak elkarrizketatu dituzte, alor ugariakoak; musikariak, artistak, diseinatzaileak, beraiek gustura sentitzen diren inguru batean eta elkarrizketatuari hitz egiten utzi diote protagonismo osoa emanez.

Gainera, arreta berezia jarri dute nor elkarrizketatu aukeratzekoan egunkariko kultur orrietan titular handitan atera ez arren, esateko asko daukaten sortzaileak aukeratuz eta esandakoa oso modu ikusgarrian aurkeztuz.

Horregatik guztiagatik aurtengo TELEBISTAKo ARGIA Sariaren irabazlea da ETB3ko **ORAIN**: programa.

Etorri saria jasotzera Iñako Gurrutxaga ETB3ko ordezkaria. Zorionak!

### **Irratia**

Ez da berria IRRATIKO ARGIA SARIA jasoko duen programa, badaramatza zenbait urte uhinetan eta euskal irratigintzaren erreferente garrantzitsua da honezkero.

Baina behin hori lortuta, konformatu beharrean erronka berriei heldu die saioak eta aurtengo denboraldian apustu arriskutsua egin du programa gidatzen duen kazetariak gure garaiko 100 diskorik onenak aukeratuz eta bakoitzari saio bana eskainiz.

Bai aukeraketa, bai saio bakoitza mimo handiarekin egin ditu Euskal Herriko musika eta atzerrikoa uztartuz disko oso ezagunak gomendatuz batzuetan, eta ezagunago izan beharko luketen diskoak besteetan.

Lan hori egitea garrantzitsua da irratian azken momentuko arrakastazko kantak bakarrik entzun ez daitezen eta kultura musikal zabalagoa izan dezagun.

Horregatik guztiagatik IRRATIKO ARGIA SARIA aurten Gazteko **EKAITZ PERFEKTUA** programarentzat da.

Etor dadila Fermin Etxegoien saioko gidaria saria jasotzera. Zorionak Fermin!